

KALEJIRA

1. BALIO PROPOSAMENA

Gure enpresan mota ezberdinetako ekintzak proposatzen ditugu, hala nola, kirola edo sukaldaritza klaseak eta meditazio jarduerak. Honekin, pertsonen ongizate fisiko eta emozionala hobetu nahi dugu. Lehenik eta behin, jarduera fisikoarekin osasuntsu egotea lortuko dugu eta gainera, aisialdian ondo pasatzea. Bigarrenik, kirolaren bidez sozializatzeko aukera dagoenez, ongizate emozionala hobetzeko aukera dago baita ere. Azkenik, jarduera nabarmenenak sukaldaritza tailerrak, meditazio saioak eta aire librean kirol saioak (korrika hiritik, yoga saioak hondartzan edota parkeetan...) izango dira.

Gure zerbitzua besteengandik desberdintzen da mota ezberdinetako jardueretan zerbitzuetan zentratzen garelako, eta ez bakarrik kirol konkretu batean. Beste ezberdintasuna da, aire librean egingo direla jarduerak ahal den einetan, eta eguraldi txarra eginez gero, gure lokalean egingo dira jarduerak. Honekin guztiarekin nahi duguna da, gure bezeroek modu errazean eskuratzea osasuntsu egoteko aukera, aipatutako zerbitzuen bidez. Gure bezeroek ez dute loturarik izango, nahi duten jarduerak aukeratzeko ahalmena izango dutelako. Azken finean, beste elkarte edo enpresetan gehien ikusten dena da osasun fisikoa lortzeko jarduerak egitea soilik, baina ez dira gehienetan aire librean egiten.

Bestalde, bezeroek jarduera ezberdinak egin ditzakete urte osoan zehar, beraien nahien arabera. Libreki apunta daitezke gure ordutegian eta aukeratu zer klaseetan parte hartu nahi duten. Hau egiteko, webgunea, aplikazioa edo bulegoa erabil dezakete.

Azkenik, eskaintzen ditugun abantaila guztiak kontuan hartuz, bezeroek zerbitzu hau ordaintzeko prest egongo direla uste dugu.

